

EUSKARA PARTEKATZEN DUGUNA

Euskaltzaleen Topagunea, Euskal Herriko luze-zabalean kokaturiko 96 Euskara Elkartek osaturiko Mugimendua da. Euskararen normalizazioaren bidean euskaltzaleak trinkotu eta euskaraz bizitzeko guneak eta uneak sortzea du helburu, hiztun komunitatea erdigunean ipiniz. Hainbat arlo jorratzen ditugu, hala nola, kultura, aisialdia, haur eta gazteak, mintzapraktika, tokiko komunikabideak eta sentsibilizazioa. Sentsibilizazioaren baitan aniztasunaren gaia jorratzeko apustua egin du Euskaltzaleen Topaguneak azken urteotan.

Euskaltzaleen Topaguneak Aniztasunari (hizkuntza, kultura eta jatorria, batik bat) buruz duen ikuspegia jendarteratzea du xede dokumentu honek.

MUGIMENDUA ETA ANIZTASUNA

Munduan 6.500 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira. Hizkuntzak dira kulturen adierazle garrantzitsuenetakoak eta, beraz, munduko kultura aniztasunari eusteko, hizkuntzak zaindu egin behar ditugu. Euskarak Euskal Herria du bizitoki bakar eta, dakizunez, egoera gutxiagotuan dago. Gainera, gurean beste hizkuntza ugari bizi dira, asko azken urteetan etorri diren pertsonen ekarriak. Aniztasuna, beraz, etxean daukagu. Bakoitzak bere hizkuntza zaindu eta erabiltzeaz gain, beste hizkuntza batzuk ere ikasiz gero, denok aberastuko gara. Eta bakoitzak bereari uko egin gabe, euskara izan dadila guztion arteko kohesio eta komunikazio hizkuntza. Horixe da Euskaltzaleen Topagunearen nahia eta apustua.

MUGIMENDUAREN 10 OINARRIAK

- 1.** Euskal Herrian hizkuntza-aniztasun oparoa dugu. Ikerketek diotenez, ehundik gora hizkuntza hitz egiten dira gure auzo eta herrietan. Aberastasun hori nabarmentzen dugu, munduko kultura ugariaren "enbaxadoreak" gure auzotarrak baitira, baikara. Aniztasunak gure herria aberasten du, gu guztiok aberasten gaitu.
- 2.** Euskara da, bertako eta berezko hizkuntza, hizkuntza endemikoa. Halaber gutxiagoturiko hizkuntza da eta bizi-eremu lur hau soilik du hizkuntza komunitateak. Munduko hizkuntza aniztasunari egiten diogun ekarpena da euskaraz bizitzea.
- 3.** Bakoitzak bere hizkuntza zaindu eta erabili behar du, bakoitzarena da eta aldi berean guztiona. Hizkuntzak ezagutzuz aberastu egiten gara, ordura arte ezezagunak genituen hainbat alderdi deskubritzen baititugu. Euskal Herrian euskara izan dadila partekatzen eta erabiltzen dugun hizkuntza, gu guztiona, geurea.



euskaltzaleen
topagunea

4. Gurera datozen, gatozen, etorri berrientzat harrera linguistikorako egitasmoak bultzatu behar dira, herritarron arteko harremanak bultzatuko dituztenak, herritarron arteko elkar ezagutza bultzatuko dutenak.

5. Herritar guztien eskubide linguistikoak babestu behar dira. Eskubide hauek herritar guztien oinarritzko eskubideen ingurumarian kokatzen ditugu eta beste eskubide guztiak bezala, herritar guztientzat berdintasun sozialerako oinarritzkoak dira.

6. Euskararen hizkuntza komunitatea eta gizarte zibil nahiz soziopolitikoaren gehiengoa euskara sustatzearen alde dago. Oraindik orain pausu erabakigarriak eman beharko ditugu euskara normalizatzeke. Bakoitzak bere ardurak ditu eta hartu behar ditugu, jendarte osoak, salbuespenik gabe.

7. Euskaraz ikasi ahal izateak bertan bizi garen guztion eskubidea izan behar du. Helduen euskalduntze eta alfabetatzeak guztion eskura egon behar du, doakoa izan behar du eta erakunde publikoek horretan ardura berezia dute.

Hezkuntza sistemari dagokionez, euskarazko murgiltze eredua da euskara barneratzeko bide eraginkorrena. Berau sustatu behar da, berdintasun soziala eta kohesio soziala bermatzeko bide azkarrena eta naturalena baita. Era berean, hizkuntza aniztasuna balorean jarriko duen hezkuntza sistema behar dugu, aniztasuna balorean jarriko duena, bertan daukagun hizkuntzak baitira.

8. Euskaraz bizi nahi duen hizkuntza komunitate bat dago. Etorkizuneko hizkuntza da eta guztion artean gero eta eremu gehiagotara zabaltzen ari gara.

9. Erabilera da hizkuntza baten bizitasunaren erakuslerik onena. Bizi dezagun euskara, bizi gaitezen euskaraz. Erabili dezagun euskara, edonon, edonorekin. Sortu ditzagun euskaraz bizitzeko guneak eta uneak, aniztasuna aintzat hartuz. Aniztasunean, euskaraz bizi!

10. Euskara, beste hizkuntza guztien modura, munduko herritar guztien ondarea da. Hala ere, euskaldun, euskaltzale eta euskal herritar guztiona da euskara garatzeko ardura, nagusiki. Euskarak batzen gaitu, euskarak egiten gaitu herri. Eraiki dezagun herri hau guztion artean, euskaraz.

AURRERA BEGIRA

Euskaltzaleen Topaguneak goian aipaturiko oinarriak bere egin eta berauek bultzatzeko hainbat egitasmo ditu abian: harrera linguistikorako, Auzoko; eskoletan hizkuntza aniztasuna azalarazteko, lingolang.net; euskarara gerturatzeko oinarritzko hiztegiak; Onki Xin harrera egitasmoa; Hesiak Gainditzen dokumentala etab. Era berean, bestelako egitasmoetan ere aniztasuna zehar lerro gisa txertatzen dugu eta etorkizunean bide beretik jarraitzeko asmoa dugu, egitasmo hauek zabaltzen eta berriak sortzen.

Bide hau ordea herritar guztioi dagokigu; norbanako, erakunde publiko, euskalgintza, jatorri anitzetako herritarren elkarte nahiz eragile sozial, politiko eta kultural guztioi. Har ditzagun bakoitzak gure ardurak eta ekin diezaigun elkarlanari. Gure mugimenduak ateak zabalik ditu, asko dugu egiteko, auzolanean lortuko dugu!

EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA
2014ko abendua